

# Gure Lurraldea

## I Onura eta atsegiña.

Mendi egal batetik begiratzalle bi daude begira. Ikusgaia, biontzako, bata eta ber-bera da: emen arta-salla, urrena erreka, aruntzago baserría, pagadia, larra, urrun-mendiak, zerua, azkenik. Ona emen kuadrúa, paisajea.

¿Zer dio, batari, zer besteari, paisaje orrek? Ikusleetako bat, pintorea da; bestea, nekazaria. Bakoitzak, berekiko gogarteak erabilliko ditu bere baitan: nekazariak, laboreen etorria; pintoreak, kanpoaren aurpegia. Arek, artoen emana, onek, bixtaren edertasuna, eta begirale bieri, ikustaldiak zerbait esango die: nekazariari, onura edo probetxuari buruz (landare sendoa, artaburu mardula, lur ezea, giro epela, itxura opakorra) eta pintoreari, berriz, edertasun aldetik, goizaldi argitsua, margotasun bizia, eguzki-alde eta gerizpeak, erreka-ren zillar-izpia, urrutiko arkaitzen erpiñak, zeru gañeko odeiak.

Ona emen paisajeari dagozkion bi iritziak: onuragarri edo utilitarioa, eta edergarri edo estetikoa. Paisajeak, lurak berak dakarren onura, ¿zeñek ukatu?... bertatik jango baitegu. Bañon beste aldetik, edertasun utsaren aldetik, ¿ezeren onik bai-ote dakarkigu paisajeari begira jartzeak?

Animaren aldeko atsegiñetatik, izadiaren edertasunak demaigun poza bañon garbiagorik gutxi liteke. Aitz-tontor batetik beera begira jarrita, ainbat aldiz Jainkoa goraldú izan degu, Bere eskuen egin-tzaren aurrean. ¿Ez al-da egia? Bada, izadi orren gozamenak dakarkigun eder-miñak, gauza ona bear du izan.

Bide ontatik dijoa paisaje-zalearen gogoá. Paisaje-zalea, izan liteke begirale utsa; izan liteke, gañera, idazlea; izan liteke pintorea. Pintorea edo idazlea ba-da, bere ikustearen eder-miñari antzematen

saiatuko da, lumaz naiz margoz. Ez dio ardurarik bere lanaren ondorena trebeagoa edo eskasagoa agertzeak; benetako gozamena egina bitartean nabaituko du-ta. Lana-bitartean darabilkien leia estuak, orretzek balio du guttia.

Paisaje zaleak, Jainkoa goraldtu, anima landu, bizitza alaitu eta gizartea onbidetu oi-du. Ogi utsez ez-da gizona bizi, Jaunaren aotik darion itzez baño; eta Jaunaren aintzak, zeru-lurreko edertasunak deritzoe, Egillearen itzak dira.

Gure Euskal Errian, ederrik asko baidegu, itxas-mendi bazter ontan; eder auk ere, aberastasanak dira. Lurraren zumoa, lurraren probetxua, gorputzari; lurraren ederrak, gogoari; biak, gizonarentzat, asegarri bearrekoak.

¿Nekazaria? ¿Pintorea? Dama bat ezagutzen det Gipuzkoan, etxe aundiko alaba eta baserri galant bateko etxeoandrea, gure paisajea iñor-gutxik bañon obeto ezagutu eta maitatuko duena. Nere solas auk irakurtzen baditu, ontzat emango ditulakoan nago; bada, dama ori, baserritarraz gañera, Gipuzkoako pintoreen artean, onenetakoa da, bostortza bañon trebeago, pintzelak erabiltzen dituena. Eta ziur nago, kanpoaren probetxuak bañon, kanpo oietxen eder-antzak geiago esango diola, herari begira jartzen danean.

## DUNIXI

